

FUNTSEZKO SOZietATEAK

Erloju adimenduna diziplina anitzeko lankidetzarekin garatuko dugu, teknologia eta diseinua uztartuz pertsona neurodibergenteentzako produktu erraz, funtzional eta egokitua sortzeko.

1. PRODUKTUAREN DEFINIZIO ETA DISEINU FASEA

Produktua erabilgarria, fidagarria eta etikoki egokia izateko **aditu kliniko eta hezitzaileen laguntza** bear da. hauen artean, neuropsikologoa, psikologo klinikoa (TDAH, TEA, dislexia eta bestelako neurodibergentzietan aditua), terapia okupazionalako profesionala, logopeda eta ezkuntza-inklusiboan aditua. Disziplina guztien desempeñu profesionala behar delako aditu gisa.

Diseinatzaileak bearuko ditugu ere. UX/UI diseinatzailea (irisgarritasun kognitiboan aditua), elkarreragin-diseinatzailea (erlojuaren pantaila txikiatarako), diseinu industrialeko aditua (erlojuaren egitura fisikorako) eta produktuen diseinu irisgarrian espezialistak adibide Erabiltzaile guztientzat ulerterraza, minimalista eta zentzumenez gainkargatu gabea izatea bermatzen dutelako.

2. TEKNOLOGIA FASEA — HARDWARE GARAPENA ETA SOFTWARE GARAPENA

Ingeniariak beharko dira ere. Ingeniari elektronikoa (sentsoreak, plaka, bateria), Ingeniari biomedikoa (estres-maila, bihotz-maiztasuna eta bestelako datuak jasotzekotan), Ingeniari mekanikoa (egitura eta material birziklatuak) eta Firmware ingeniariak (erlojuaren sistema eragilea)

Fabrikaziorako osagai elektroniko hornitzaileak, wearable gailuen muntaketa fabrikak eta material birziklatuen hornitzaileak beharko dira, erloju fisikoa sortzeko behar-beharrezkoak direlako.

Programatzaileak behar dira, Android/iOS aplikazio-garatzailerak, smartwatch software-garatzailerak (WearOS, watchOS edo sistema propioa) backend garatzailea (zerbitzariak, datuen sinkronizazioa), full-stack garatzaileak eta QA testerrak (kalitate kontrola) produktuaren funtzionamendua bermatzeko

Adimen Artifiziala garatzeko : IA / Machine Learning ingeniariak, NLP (hizkuntzaren prozesamendua) adituak, datu-arkitektoa eta prompt engineer (eredu generatiboak erabiliz gero) beharko dira, izan ere, IAK zereginak antolatu, testuak irakurri, laburtu, argibideak sortu, emozioak kudeatzen lagundu eta prozesu kognitiboak erraztu behar ditu.

3. SEGURTASUNA ETA PRIBATUTASUNA

Segurtasuna eta pribatasuna garatzeko zibersegurtasun adituak, pribatutasun eta datu-babesan espezialistak (RGPD/GDPR) eta teknologia sanitarioan espezializatutako abokatua.